

asteko



Gazteen etorkizuna Iparraldean ♦

Gazteriak taldeak antolatuta, Gazte Egunak egingo dituzte aste-buruon Ezpeletan, gaur bertan hasita. Hainbat gai izango dituzte hizpide jardunaldi horietan: langabezia, prekarietatea, Ipar Eus-

kal Herriko gazteen etorkizuna ikasketak bukatu eta gero, egoera politikoa... Hori aitzakiatzat hartuta, gazteen egoeraren inguruko bi iritzi ezberdin jaso ditugu gure orrietan.

Gazte abertzaleen proiektua eraikitzen

• GORKA TORRE •

[GAZTERIAK TALDEKO KIDEA]

Apirilaren 16, 17 eta 18an, gazte andana bat bilduko gira Ezpeletan burutuko diren Gazte Egunetan. Parada izanen dugu kantuz aritzeko, dantzatzeko, kirola egiteko, jostatzeko, musika entzuteko, hainbat gazte talderen lanaz informatzeko, eztabaidatzeko... Bai, eztabaida polit bat gainera, Gazte Egun hauekin Gazte Abertzaleen Proiektua zein den definitzen hasi nahi dugulako.

Azken urteetan gazte abertzaleen mugimendu bat egituratzen joan da Ipar Euskal Herrian, hainbat arlotan lanak hasi dituena: nazio eraikuntza, euskara, antimilitarismoa, ingurugiroa, gazteen bizi-baldintzak, antifaxismoa, erakaskuntza... Gaur, arlo bakoitzean hasitako hausnarketak segitzea eta denak batzea Gazte Abertzaleen Proiektua zein den definitzeko interesgarria iduritzen zaigu.

Hori egiteko, beharrezkoa zaigu aztertzea eta zehaztea: zein den gaur egungo gazteen egoera arlo bakoitz hauekin, arlo bakoitzean zein diren gure helburuak eta helburu hauek heltzeko proposatzen ditugun urratsak.

Hausnarketa horiek guziak Gazte

Abertzaleen Proiektua deitutako idazlan batean bilduko ditugu. Erran gabe doa lan hori ahal bezainbat gazte abertzaleren artean egitea interesgarri litzatekeela.

Gazte Abertzaleen Proiektua eskuetan ukaiteak, hainbat gauzatan lagunduko gaitu: zein lan lehentasuna eman behar zaien erabakitzeko, guhaurek Proiektu Abertzalea zer den argi ukan dezagun eta defendatzeko gai izan gaitezen, abertzale ez direnei proiektu abertzalea zer den esplikatzen eta arduradun politikoei gure aldarrikapenei ekarri behar dizkieten erantzunak eskatzeko.

Gazte Egun hauekin, larunbat arratsaldean bietatik bostetara antolatu

dugun forumean, hiru gai sakontzen hasiko gira: ingurugiroa/lurralde antolaketa, langabezia/prekarietatea eta eskuin muturra/adierazpen askatasuna. Eztabaidak aberasteko, bideoak ikusteko aukera izanen dugu eta gomitak izanen dira. Gazte Egunak iragan eta, beste gaiak sakonduko ditugu ere bai. Osatzen joango garen Gazte Abertzaleen Proiektu hori, etengabe zuzendu, hobetu eta osatu beharko dugu. Euskal Herri bakar bat denek dugunez helburu, Euskal Herri osoko Gazte Abertzaleen Proiektua urratsez urrats eraikitzea da gure nahia.

Euskal Herriko gazte abertzaleek argiki erakusten dugu gure etorkizu-

naren eraikuntzan parte hartu nahi dugula, gure beharrak ase eta arazoak konpondu nahi ditugula. Nahi horiek gauzatzeko, argi dugu Euskal Herriak erabakitzeko ahalmena ukan behar duela, bere buruaren jabe izan behar duela. Baina Frantziak eta Espaniak ukatzen digute herri bezala dagokigun eskubide hori. Bi estatu horiek, Euskal Herriko gazte mugimenduen nahiei errepresioarekin erantzuten diete. Gogora dezagun frantses estatuak ez dizkiola oraindik Gazteriak-i itzuli kendu zizkion ordenagailuak, gogora ditzagun azken hilabeteetan gazteek jasandako atxilotetak, epailetak, presondegiratzak...

Estatuen jarrera horren aintzinean, gure erantzun hoberena gazte mugimendua indartzea da, eta Gazte Abertzaleen Proiektua aitzina eramaita.

↑
Euskal Herriko gazte abertzaleek argiki erakusten dugu gure etorkizunaren eraikuntzan parte hartu nahi dugula, beharrak ase nahi ditugula
↓



Gazteak eta etorkizuna

• ERIC SOREAU •

[RPR GAZTEAK TALDEKO KIDEA]

Euskal Herriko RPR Gazteak mugimenduak ehun kide inguru ditu, eta haiei esker oso egoera onean gaude hainbat arazo ulertzeko, gure taldean ikasleak, langabetuak, soldatapekoak eta abar ditugulako.

Ikasketak, lana, etxebizitza edo kultura: Euskal Herriko gazteek arazoak dituzte arlo horietan guztietan, baina arazook ezer gutxi desberdintzen dira beste eskualdeetan dituztenetatik.

Halarik ere, hainbat faktorek, besteak beste, Espainiako mugaren hurbiltasunak, historiak eta klimak, leku berezia ematen diote Euskal Herriari Europaren baitan.

Lan arlokoa da arazo nagusia. Gaur egun, Euskal Herriko gazteei aurrera ateratzeko hiru bide eskaintzen zaizkie. Lehen-lehenik, ikasketa-ziklo klasikoa: institutuan ikasi eta ondoren Baionako, Pauko edo Bordeleko fakultatera pasatzea. Prestatutako ikasle gazteek ezingo dute lana aurkitu eskualdean, haien eskaerei erantzuteko oso enpresa gutxi dagoelako, edo bat bera ere ez. Bi-

garren aukerak institutuaren ondoko profesionalizazioarekin du zerikusia, baina lanpostuak, aurkitzen direnean, gehienetan turismo arlokoak eta hirugarren sektorekoak (zerbitzuak) izaten dira. Hirugarren eta azken bidea, berriz, ikasketarik egin ez dutenena da, eta langabezia da haien *irtenbide* bakarra, edo sasoi jakin batzuetan lantxo

batzuk egitea, baina gizarteratzeko aukerarik gabe...

Garapen ekonomikoaren arazoak lanpostuak sortzea galarazten du, eta gazteek deseriratu behar izaten dute lanpostu bat aurkitzeko. Jarduera tradizionalak, arrantza edo nekazaritza esate baterako, poliki-poliki desagertu egiten dira turismoaren mesedetan.

Euskal Herriak Europan duen kokapen pribilegiatuak baliatu beharreko aukera izan behar du bertan enpresa teknologikoak edo industriak jartzeko, betiere kontuan izanik Espainiaren konkurrentzia...

Euskal Herrian, halaber, desoreka handia dago barnealdearen eta kostaldearen artean; izan ere, azken horretan askoz jende gehiago bizi da. Enpleguaren parez pare, hiriek proposatutako azpiegiturretan ere desoreka dago, ez dutelako politika koherente eta bateraturik, ez gizarte arloan -adibidez, etxebizitza sozialak gazteentzat...-, ez kiroletan, ez kulturen... Baina gazte gutxi murgiltzen da beren eskualdeko bizitzan.

Industrian irtenbide interesgarriak ez dutenez, gazteek beren kabuz jardun behar dute enpresa-espirtuarekin. Euskal Herrian, gainditu beharra dago arazo erregionalista, eta eskualdeko gazte guztiak batu behar dira garapena lortzeko, nola ekonomian hala kulturen...

• Erredakzioan itzulia